

8- Funtsezko jarduerak

Gure negozioak funtziona dezan aurrera eramatean beharrezko ikusten ditugun funtsezko jarduerak azalduko dizkizuegu jarraian:

Bolantea **ekoizterako** edo sortzerako da lehenengoa.

Bolantea sortzerako orduan manufakturarako gaitasunak dituen enpresa batekin egingo dugu lana, gure enpresak ez baitu izaera hori.

Hasteko, gure ardura garrantzitsuena bolantearen diseinua sortzea izango da. Bolantea nolakoa izango den fisikoki eta barneratuak ekarriko dituen berrikuntza guztiak gure enpresan sortuak eta prototipatuak izango dira. Baina, azken honen sorkuntza fisikoa, beste enpresa baten esku egongo da. Akordioa lortu dugun enpresaren esku hain zuzen ere.

Horrez gain, gure enpresak izan duen beste arduretako bat, bolantearen logoa sortzea izango da. Eta gure ardura izango da diseinua zaharkitua gelditzen joaten den heinean berritzen joatea. Beste enpresa askok beren logoekin egin duten bezala.

KARTINN  VA



SEAT
1950



SEAT
1960

SEAT

SEAT
1970



1980



1992



1999

Logoa, bolantean txertatua egongo da. Ibilgailuaren enpresako logoari garrantzia kendu gabe. Hau da, lan egiten dugun enpresarekin bateratutako logoa egingo dugu edo beste enpresak ala nahiago badu bere enpresaren logoa izango da zentrala eta gurea bolantearen beste puntu batean barneratuko dugu.

Gure enpresako beste sail garrantzitsu bat **arazoen konponketarako** pentsatutako taldea izango da.

Talde honek izango duen ardura handia izango da. Ez ditu bolanteak izan ditzakeen arazoak konpondu behar baizik eta ahal den neurrian aurreikusi ere bai. Eta ez bolantearenak bakarrik, baita enpresako beste edozein arlotan sor daitezkeen arazoak ere.

Bolantea edo logoaren diseinua zaharkitua gelditu aurretik aurreikusi beharko du gure enpresak ez dezan axolagabe itxura izan. Eta baita, gure enpresako web orria zaharkitua gelditu aurretik ere. Merkatuko tendentzien azterketa egin beharko du beti ere: kolorerik salduenak, jendearen diseinurik gustukoena ...



Informatikoki sor daitezkeen arazoak konpontzeko gai izan behar du eta kontrol bat eraman, beti ere hauek ez daitezen gertatu ahal bada.

Azkenik, talde honek gure beste enpresekin edo bezeroekin ditugun harremanak zaindu beharko ditu. Haserreak edo egoera desatseginak ez daitezen sortu eta honek ez dezan ekarri ondoren, akordioren baten puskatzea. Talde honek bezeroekiko harremana ere zaindu behar du gure enpresan ahoz-ahokoa ere oso garrantzitsua kontsideratzen baitugu.

Beste arduretako bat, gure enpresa ezagutzera eramatea izango da. Horretarako, hainbat **plataforma** eta **sareko jarduera** ezberdin erabiliz, (web-orria, facebook, irratia, publizitate- iragarkiak eta iragarki panelak).

Baina, plataforma edo sareko jarduera hauen helburu bakarra ez da izango gure enpresa ezagutzera eramatea. Bezeroekin komunikatzeko ere erabiliko ditugu eta baita bere gustu eta nahiak ezagutzeko ere. Horrela, gure enpresaren erabakian bezeroengan oinarrituko ditugu ondore, salmenten azterketaren orduan, emaitza onak lortzeko helburuarekin. Horrez gain, bezero zorientsuak izatea ere badugu gure enpresaren helburu eta ez etekinak izatea bakarrik.